

EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2026

3-6. mailakoentzako GALDETEGIA



Taldekide guzien izen-abizenak: _____

Taldearen izena: _____ Maila: _____

1. Herriko etxeak bere paretetan animaliak lotzeko aro edo uztaitxoak ditu. Zenbat ditu guztira?
2. Martxoan Korrika Lesakatik pasatu zen. Nortzuk eraman zuten Betti Gazteri zegokion kilometroan lekukoa?
3. Zein izen du Lesaka eta Igantzirekin muga egiten duen erreka?
4. Zein gai du ardatz Lesakako "Oinak bidean" ibilbideak?
5. Zein izen du San Ferminetako danborradetan karrikabueltan jotzen den kankak?
6. Non du jatorria Irain eskolaren izenak?

7. Bere zenbatgarren eleberria argitaratu berri du Maddi Ane Txoperenak?

8. Aipatu azken urtean jabez aldatu duten herriko bi komertzioren izenak.

9. Herrigunean zein inguruko mendietan ikus ditzakegu marka gorri eta zuriak. Zer adierazten dute? Erran marka hauek dauden bi toki.



10. Izendatu Lesakan dauden bi urtegi?

11. Lesakako Eltzeta karrikan bada sekuoia bat. Haren ondoan txartel bat bada. Zer dio txartel horrek?

12. Zein izen du Tantirumairu ikastolaren eraikin "zaharrak"?

13. Azken urteetako Arbolaren Egunean zein parajetan landatu dira arbolak?

14.Noiz ireki zituen ateak lehen aldiz Magala haur eskolak?

15.Zein izen du Izotzaldea eta Ote kalea elkartzen dituen mendixkak?

16.Zenbat ibilgailurentzako dago tokia herri sarreran ireki berri duten autokarabanentzako gunean?

17.Zein izen du Zarandia karrikako 9 zenbakia duen etxeak?

18.Beti Gazte elkarteak bi dantza talde ditu. Zein dantza mota dantzatzen dute?

19.Izendatu Beti Gaztek antolatutako azkeneko margo azkarreko lehiaketan herriko artista hoberenaren saria jaso zuen margolaria.

20.Gardelko Pagoeta parajea "Hormigoizko mugak ibilbideak" kartelaren arabera, zenbat prisionero inguruk zulatu eta zeilatu zuten Lesaka eta Oiartzun arteko errepidea?

21. Idatz itzazu Lesakako 6 plazaren izenak.

22. Zein izen du Biurrana ibaia zeharkatzen duen zubi teilatudunak?

23. Idatz itzazu armarria duten Albistur karrikako bi etxeren izenak.

24. Led Silhouette konpainiaren zein obra estreinatu zen apirilean Harriondoan?

25. Zein izan zen Irintzi peñaren maskota 1970. hamarkadan?

26. Noiz inauguratu zen Mastegiko futbol zelaia?

27. Ekainan Beti Gaztek xake lehiaketa antolatuko du. Zein herritaren oroimenez egingen da?

28. Lesakako hurrengo feriek aldateka handi bat izanen dute. Zein da aldateka hori?

29. Idatzi Xorroxin Irratiak Lesakan duen egoitzan aritzen den erratariaren/kazetariaren izen abizenak.

30. Marraztu Lesakako eraikinik altuena.

Erantzunak entregatzeko azken eguna: maiatzak 29, ortzira